

FUNDACIÓN ADINBERRI FUNDAZIOA
URTEKO KONTU LABURTUEI BURUZKO KONTU
IKUSKAPENeko TXOSTENA 2020EKO EKITALDIA



AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EMANDAKO URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

Adinberri fundazioko patronatuari:

Iritzia

Adinberri Fundazioaren urteko kontuak, atxikita doazenak, ikuskatu ditugu, hau da, sozietate horrek 2020ko abenduaren 31ko datan duen balantzea, irabazi eta galeren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek *Adinberri Fundazioak* 2020ko abenduaren 31n duen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute, haren garrantzizko alderdi guztietan, eta, horrekin batera, urte horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak adierazten dituzte, finantza-informazioaren alorrean betetzekoa den arau-esparruak agintzen duen moduan (memoriako 2. oharrean identifikatuta daudenak), eta, berariaz, hark adierazten dituen kontularitzako printzipioak eta irizpideak aintzat hartuta.

Iritzia emateko oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen eta kontu-ikuskaritzak arautzen dituen arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak ondoren deskribatuko ditugu, gure txosteneko Urteko kontuen ikuskaritza-txostenean auditoreak duen erantzukizuna atalean.

Fundaziotik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan erabili beharreko etikaeskakizunen arabera (independentzia eskakizuna ere barnean sartuta), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz beste zerbitzurik eskaini eta ez da beste egoera edo gorabeherarik gertatu, aipaturiko araudiaren arabera eduki behar denezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia ematen du, gure auditoretza-iritzia emateko.

Nabarmen paragrafoa

Kontu-ikuskapeneko gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzek finantzatzen dutela funtsean Fundazioaren jarduera. Horregatik, ezinbestekoa da etorkizunean laguntza horiek jasotzea jarduerak jarraituko badu.





AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Zera dira auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi horretako urteko kontu laburtuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik esanguratsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu dira gure kontu laburtuen auditoretzan eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia. Hala, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Egindako ikuskaritzan kontuan hartu beharreko arrisku esanguratsurik ez dagoela egiaztatu dugu gure txostenean.

Urteko kontu laburtuen inguruan Patronatuak duen erantzukizuna

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea Patronatuaren ardura da, eta Fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar ditu, zorroztasunez, Espainian erakundeari aplikatzekoa zaión finantza-informaziorako arauari eta urteko kontuak iruzurren edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontuak prestatzean, Patronatuaren ardura da Fundazioak jarduneko entitatea izaten jarraitzeko gaitasuna baloratzea. Dagokionean, jarduneko entitateari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa erabili behar du, salbu eta Patronatuak entitatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badu, edota beste aukera errealistarik ez badago.

Auditorearen erantzukizuna urteko kontu laburtuen auditoretzaren harira

Gure helburuak: urte kontuek, osotasunean, hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskaritza txostena ematea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da baina, halere, ez du bermatzen Espainian ikuskaritza-jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoretzak beti antzemango duenik akats materialen bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke eta akats materializat jotzen dira baldin eta, banaka edo batuta, eta urteko kontuetan oinarrituta, erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Espainian kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu ikuskaritza osoan. Eta, horrekin batera:

- Urteko kontuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu arriskuhoriei erantzuteko, eta gure iritzia emateko oinarria eskuratzeko auditoretza-ebidentziak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialik ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materialik ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin erka dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.





AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

- Erakundearen barne-kontrol esanguratsua inguruko ezagutza eskuratzen dugu, baina ez barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, baizik eta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko.
- Erabiltzen dituzten kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-balioespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, Patronatuko kideek emandako informazioa aztertuta.
- Patronatuko kideek jarduneko entitatearen kontabilitate-printzipioa zuzen erabiltzen ote duten ondorioztatzen dugu eta, eskuratutako auditoretza-ebidentzia oinarri hartuta, Fundazioak jarduneko entitatea gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ote dagoen ebazten dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontuetan azalerazi den informazioari buruz ohartarazteko betebeharra dugu. Eta, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Gure ondorioak ikuskaritza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Dena dela, gerta daiteke ikuskaritza-txostena egin eta gerorako gertaerek edo baldintzek eragitea Fundazioa jarduneko entitatea izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta azertu egiten dugu urteko kontuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako irudia adierazteko moduan.

Patronatuko kideekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta auditoretzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Patronatuko kideei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horietatik baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Auditoría y Gestión Empresarial, S.L.
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua,
S0979 zenbakiarekin

Miguel Ángel Iglesias Altola
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean erregistratua,
10.711 zenbakiarekin

Donostia / San Sebastián, 2021ko apirilaren 27an



AUDITORIA Y GESTION
EMPRESARIAL S.L.

2021 Núm. 03/21/02217

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

ADINBERRI FUNDAZIOA

URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA

2020 EKITALDIA

EGOERA-BALANTZE LABURTUA

EMAITZEN KONTU LABURTUA

ADINBERRI FUNDAZIOA
2020KO ETA 2019KO EKITALDI-ITXIERAKO BALANTZE LABURTUA
(Eurotan)

AKTIBOA	HEMOKALARI N OHARRAK	31/12/2020	31/12/2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	HEMOKALARI N OHARRAK	31/12/2020	31/12/2019
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		185.145	25.705	A) ONDARE GARBIA		363.578	88.246
I. Ibilgetu ukiezina	5	162.021	12.033	A-1) Fondo propioak	8	30.000	30.000
				I. Fundazioaren zuzkidura		30.000	30.000
				I. Fundazioaren zuzkidura		30.000	30.000
III. Ibilgetu materiala	5	23.124	13.672	II. Erreserbak			
				III. Aurreko ekitaldietako soberakinak			
				IV. Ekitaldiko soberakina		0	0
				A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	333.578	58.246
				B) PASIBO EZ ARRUNTA		12.250	
				II. Epe luzeko zorrak		12.250	
				3. Epe luzeko bestelako zorrak		12.250	
B) AKTIBO ARRUNTA		269.986	134.786	C) PASIBO ARRUNTA		79.304	72.245
III. Erabiltzaileak eta bestelako jarduera zordunak	6		0	III. Epe laburreko zorrak		0	0
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak				3. Epe laburreko bestelako zorrak			
V. Epe laburreko libertsioak taldeko entitate eta elkartutakoetan				IV. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	7,9	79.304	72.245
VI. Epe laburreko finantza inbertsioak				2. Hainbat hartzekodun		79.304	72.245
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioak		269.986	134.786				
AKTIBO GUZTIRA (A+B)		455.132	160.491	ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+C)		455.132	160.491

ADINBERRI FUNDAZIOA

2020ko eta 2019ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-TRABAZIEN KONTUA
(Eurotan)

	MEMORIAREN OHARRAK	(Zor) / Hartzeko	(Zor) / Hartzeko
		31/12/2020	31/12/2019
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak	10	629.775	1.017.777
d) Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		629.775	1.017.777
3. Laguntza eta besteengatikoko gastuak		0	-650.000
a) Moneta-laguntzak			-650.000
7. Jarduerako bestelako diru-sarrerak			
8. Pertsonal-gastuak	10	-293.636	-252.853
9. Jarduerako bestelako gastuak	10	-336.139	-114.940
10. Ibilgetuaren amortizazioa	5	-6.552	-2.554
11. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	6.552	2.554
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+3+7+8+9+10+11)		0	-16
14. Finantzako diru-sarrerak			17
15. Finantzako gastuak			
16. Arrazoizko balioaren aldaketa finantza-tresnetan			
17. Kanbio diferentziak			
18. Finantza tresnen narriadura eta besterentzearen emaitza			
A.2) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA (14+15+16+17+18)		0	17
A.3) ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)		0	0
19. Mozkinen gaineko zerga			
A.4) Ekitaldiko soberakinean onartutako ondare garbiaren aldaketa (A.3+19)		0	0
B) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuak		281.884	1.025.549
1. Jasotako diru-laguntzak	11	281.884	1.025.549
B.1) gastuengatik (1)		281.884	1.025.549
C) Ekitaldiko soberakinari birsailkapena			
1. Jasotako diru-laguntzak	11	-6.552	-1.020.332
C.1) Ekitaldiko soberakinari birsailkapenengatikoko aldaketa ondare garbian (1)		-6.552	-1.020.332
D) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatikoko aldaketak ondare garbian (B.1+C)		275.332	5.217
E) Irizpide aldaketengatikoko doikuntzak		0	0
F) Akatzengatikoko doikuntzak		0	0
G) FUNDAZIOAREN ZUKIDURAN ALDAKETAK		0	0
H) Bestelako aldaketak		0	0
I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.4+D+E+F+G+H)		275.332	5.217

Atxikitako laburpen-memoriaren 1.oharretik 17.era bitartekoak 2020ko eta 2019 abenduaren 31ko irabazi eta galeren kontuaren parte dira

**2020KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAREN
LABURPEN-MEMORIA**

1. oharra.- Fundazioaren jarduera

Adinberri Fundazioa, aurrerantzean Fundazioa, 2018ko uztailaren 17an eratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian, Donostiako Gipuzkoa plazan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundira atxiki zen.

Fundazioa fundatzaileen borondatearen, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen arabera arautzen da.

Fundazioari aplikatu beharreko aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak foru-mailako merkataritza-sozietateei begira zehaztutakoa izango da.

Fundazioa lotua egongo da irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan zehaztutako preskripzioetara.

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere ondarea interes orokorreko xedeetarako erabiliko da, fundatzaileek hala eskatuta.

Fundazioaren helburua Gipuzkoako berrikuntza-potentzialari ahalik eta etekinik handiena ateratzea da, zahartze osasuntsuaren, sistema soziosanitarioaren bikaintasunaren eta alorreko industria-lehiakortasunaren alde. Horretarako, Agenda Estrategikoan zehaztutako prestakuntza-, ikerketa-, berrikuntza-, ekintzaitetza- eta inkubazio-jarduerak burutuko dira.

Fundazioaren egungo egoitza soziala Donostiako Gipuzkoa plazan dago (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Jauregia), hala ere, bulegoak Donostiako 166 zenbakiko Miramon Pasalekuan daude.

Gutxienez, balantzeak, emaitzen kontuak, memoriak eta aurreko jarduketa-planaren likidazioak osatu beharko dituzte urteko kontuak. Fundazioaren garrantzi ekonomikoa dela eta, urtero kanpoko kontu-auditoretza burutu beharko da. Auditoreek igorritako txostena Fundazioen Erregistroan gorde beharko da, urteko kontuekin batera.

2. oharra.- Fundazioaren urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak

2.1. Irudi fidela.

2020 ekitaldiari dagozkion urteko kontuak 2020ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetatik abiatuta formulatu dira, eta, horrez gain, irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan eta kontabilitatearen arloko gainerako indarreko lege-xedapenetan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak aplikatu dira. Jasotako datuek Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Urteko Kontu Laburtuak, Egoeraren Balantzea, Emaitzen Kontua eta Laburpen Memoria osatzen dituzten dokumentuetan jasotako zifrak eurotan daude.

Ez dago arrazoirik irudi fidela erakusterako orduan kontabilitate-arloko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Patronatuaren Batzordeak onartu beharko ditu Urteko Kontu Laburuak, eta aurreikusten da aldaketarik gabe onartuko dituela.

2.2. Aplikatutako kontabilitate-printzipioak (ez dira nahitaezkoak)

Nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak hartu dira kontuan, atxikitako finantza-egoeretan eragin garrantzitsuak dituztenak. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena.

Fundazioak funtzionamenduan dauden erakundeekin lotutako printzipioan oinarrituta prestatu ditu finantza-egoerak, hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketak eragin ditzakeen arriskurik gabe.

Atxikitako urteko kontuetan Patronatuko kideek egindako zenbatespenak erabili dira maiz, bertan erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoak zenbatzeko. Oro har, zenbatespen horiek aktibo materialen bizitza baliagarriari egiten diote erreferentzia.

Nahiz eta zenbatespen horiek urteko kontuak formulatzerakoan eskuragarri zegoen informazioa onenaren arabera egin ziren, baliteke etorkizuneko ekitaldietan aldaketak egin behar izatea (gora edo behera), eta hori gerora egingo litzateke, etorkizuneko irabazi- eta galera-kontuetako zenbatespen-aldaketak aintzat hartuz.

2.4. Informazioaren alderaketa.

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatuz eratorritako ondorioetarako, 2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira.

2.5. Hainbat partidatan jasotako elementuak.

Ez dago bi balantze-partida edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

2.6. Kontabilitate-irizpideen aldaketak.

Ekitaldian zehar ez da aldaketarik egon kontabilitate-irizpideei dagokienez.

2.7. Akatsen zuzenketa.

2020ko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. oharra.- Ekitaldiko soberakina

2020ko ekitaldiari dagokion soberakina banatzeko proposamena, Fundazioaren Patronatuko Batzarrak formulatua, honakoa da:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	0
Guztira	0
Banaketa	
A Aurreko ekitaldietako soberakinak	0
Guztira	0

2020ko abenduaren 31an, Ekitaldiko galdu-irabazien kontuko saldoa baliogabea zen, ekitaldiko aurrezki guztia jarduera nagusira bideratu baitzen. Horrela, diru-laguntzen partidari banatzeko dago. (11. Oharra)

2019 ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Fundazioaren Patronatuko Batzarrak onartu zituen 2020ko ekainaren 26ko bilkuran:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	0
Guztira	0
Banaketa	
A Aurreko ekitaldietako soberakinak	0
Guztira	0

4. oharra.- Erregistro- eta balorazio-arauak

Honako hauek izan dira Fundazioak 2020 ekitaldiko urteko kontuak kalkulatzeko erabili dituen balorazio-arau nagusiak (betiere indarreko legedia betez):

4.1. Ibilgetu materiala eta ukiezina.

Ibilgetu ukiezineko elementuak (aplikazio informatikoak) erosketa-prezioan baloratu dira, finantza eta konponketa gastuak barneratu gabe. Gastu hauek zuzenean ekitaldiko emaitzetara eramaten dira.

Amortizazioa era linealean egiten da, ondasunen bizitza erabilgarria hasi eta lau urteko epean.

Ibilgetu materialeko ondasunak erosketa-prezioan baloratu dira, finantza gastuak eta bizitza erabilgarria luzatzen duten hobekuntzen kostuak kontutan hartu gabe. Hauek, ekitaldiko emaitzetara eraman dira.

Ondasun horien amortizazioa era linealean egiten da, ondasunei kalkulatzeko zaien bizitza erabilgarriak irauten duen bitartean.

Kalkulatutako bizitza erabilgarriak aplikatuta, amortizazio ehuneko hauek lortzen dira:

Elementuak	Portzentaia
Altzariak	15%
Ekipamendu informatikoak	25%

4.2. Finantza-tresnak.

Fundazioak epemugaren arabera sailkatzen ditu bere zorrak, eta epe laburreko zortzat hartzen ditu 12 hilabetetik beherako epemuga duten zenbatekoak.

a) Finantza-aktiboak:

Finantza-aktibo bat edozein motatako aktiboa da: eskudirua, beste enpresa baten ondare-tresna, dirua edo beste finantza-aktibo bat jasotzeko kontratuzko eskubidea, hirugarrenekin finantza-aktibo edo -pasiboak trukatzeko eskubidea (baldintza onuragarrietan), etab.

Honako sailkapen hau jarraituko da Fundazioaren finantza-aktiboak baloratzeko:

Eskudirua eta baliabide likido baliokideak

Egoera-balantzearen epigrafe honetan kutxa eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta epe laburreko beste inbertsio batzuk erregistratu dira, kutxan berehala egin daitezkeenak eta balio-aldaketak jasateko arriskurik ez dutenak.

Kobratu beharreko partidak

Epe laburreko mugaeguna dutenak eta kontratupeko interes-tasarik ez dutenak, hala nola langileen aurrerakin eta kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen ordainketak. Balio nominalaren arabera baloratuko dira.

b) Finantza-pasiboak:

Jaulkitako, irabazitako edo bereganatutako finantza-tresnak finantza-pasibo moduan sailkatuko dira, osotasunean edo zati batean, betiere enpresarentzat –bere errealitate ekonomikoaren arabera– zuzeneko edo zeharkako kontratu-betebeharra badira; eskudirua edo beste finantza-aktibo bat entregatzeko edo hirugarrenekin baldintza kaltegarrietan finantza-aktibo edo -pasiboak trukatzeko betebeharra, hain zuzen ere.

Honako sailkapen hau jarraituko da Fundazioaren finantza-pasiboak baloratzeko:

Ordaindu beharreko partidak

Epe laburreko mugaeguna duten eta kontratupeko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketetatik eratorritakoak, epe motzera ordaindu beharreko zenbatekoarekin. Balio nominalaren arabera baloratuko dira.

4.3 Sozietateen gaineko zerga

Fundazioa bat dator irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauarekin. Fundazioak ez du sozietateen gaineko zerga ordaindu behar honako errenta hauengatik: erakundearen xedeei laguntzeko jaso dituen donazioak, ondare-zuzkidura kontzeptuan jasotako ekarpenak barne; bazkideek, kolaboratzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarri eta higiezinetatik eratorritako errentak, hala nola dibidenduak eta sozietateen irabazietako partaidetzak, interesak, kanonak nahiz alokairuak; erosketa edo transmisioetatik eratorritako errentak, edozein ondasun- edo eskubide-titulurengatik; eta, zerga-araudiaren arabera, erakundeari egozten zaizkionak eta salbuetsitako errenta batetik datozenak

4.4 . Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrera eta gastuak sortzapean-irizpidearen arabera zenbatzen dira, hau da, ordezkutzen dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontea gertatzen denean, eratorritako moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein dela ere.

Hala ere, zuhurtasunaren printzipioarekin bat etorritz, Fundazioak ekitaldiaren amaierako irabaziak soilik zenbatzen ditu; beraz, arriskuak eta galerak (baita behin-behinekoak ere) ezagutu bezain laster zenbatzen dira.

4.5. Langileen gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak

Enplegua behar ez bezala amaitzeko aurreikus daitekeen premiarik ez dagoenez, eta kalte-ordainik jasotzen ez denez, Erretiratzen diren edo zerbitzuak beren borondatez uzten dituzten enplegatuen kalte-ordainengatiko ordainketak sortzen direnean, gastuetara kargatzen dira kaleratzea erabakitzeke uanean.

4.6. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Jasotako diru-laguntzak kontabilizatzeko, Fundazioak irizpide hau du:

Itzuli beharrik gabeko kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Zenbatekoaren edo emandako ondasunaren arrazoizko balioan balioesten dira, diruzkoak diren ala ez kontuan hartuta, eta emaitzetara egozten dira, diruz lagundutako elementuetarako aldiari egindako amortizaziorako zuzkiduraren proportzioan edo, hala badagokio, narriaduragatik besterentzen edo balio-zuzenketa egiten denean, funts propioetan zuzenean erregistratzen diren eta inolako diru-sarrerarik osatzen ez duten bazkide edo jabeengandik jasotakoak izan ezik. Fundazioa sektore publikokoa denean edo fundazioak interes orokorreko jarduerak sustatzen dituenean, salbuespen hori ez da aplikatuko.

Diru-laguntza itzulgarriak

Integragarriak direnean, pasibo gisa kontabilizatzen dira.

Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak

Emaitzetan ordaintzen dira ematen direnean, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzeko erabiltzen direnean; kasu horretan, ekitaldi horiei egotziko zaizkie. Gastu espezifikokoak finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastuak sortu ahala egotziko dira.

4.7. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Patronatuko kideek baieztatu dute Fundazioak ez duela ondarearekin, finantza-egoerarekin eta emaitzekin lotutako eta ingurumen-izaerako erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo kontingentziarik.

4.8 Aktibo eta pasiboen sailkapena: korronteak eta ez-korronteak

Atxikita doan balantzean, saldoak korronte eta ez-korronteetan sailkatzen dira. Korronteen barne sartzen dira, Sozietateak saldu, kontsumitu, ordaindu edota gauzatu nahi dituen saldoak, ustiapenaren ohiko zikloan. Sailkapen horren barruan sartzen ez diren beste guztiak ez-korronteak dira.

5. oharra.- Ibilgetu material eta ukiezina, eta higiezinetakoinbertsioak

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

	Saldoa 31-12-19	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	Saldoa 31-12-19
<i>Kostua</i>					
Altzariak	9.814	8.829			18.643
Ekipamendu informatikoak	6.111	5.325			11.436
<i>Kostua guztira</i>	<i>15.925</i>	<i>14.154</i>	<i>0</i>	<i>0</i>	<i>30.079</i>
<i>Amortizazio metatua</i>					
Altzariak	-1.186	-2.749			-3.935
Ekipamendu informatikoak	-1.067	-1.952			-3.019
<i>Guztira amort. metatua</i>	<i>-2.253</i>	<i>-4.702</i>	<i>0</i>	<i>0</i>	<i>-6.955</i>
Garbia	13.672	9.452	0	0	23.124

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

	Saldoa 31-12-18	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	Saldoa 31-12-19
<i>Kostua</i>					
Altzariak		9.814			9.814
Ekipamendu informatikoak		6.111			6.111
<i>Kostua guztira</i>	<i>0</i>	<i>15.925</i>	<i>0</i>	<i>0</i>	<i>15.925</i>
<i>Amortizazio metatua</i>					
Altzariak		-1.186			-1.186
Ekipamendu informatikoak		-1.067			-1.067
<i>Guztira amort. metatua</i>	<i>0</i>	<i>-2.253</i>	<i>0</i>	<i>0</i>	<i>-2.253</i>
Garbia	0	13.672	0	0	13.672

Fundazioak ez du ibilgetu materialeko inbertsiorik lurralde nazionaletik kanpo.

Ez dago ekitaldian zehar kapitalizatutako gastu finantzariorik.

Ez dago 2020ko abenduaren 31n ustiapenari lotu gabeko ibilgetu-elementurik.

Ez da ibilgetuaren ondasunen balioespen-zuzenketarik egin.

Ez da sarrerarik edo gasturik kontabilizatu erantsitako galdu-irabazien kontuan ibilgetuaren salmentengatik.

Fundazioaren politika aseguru-polizak formalizatzea da, ibilgetu materialeko elementuek izan ditzaketen arriskuak estaltzeko. Zuzendaritzak estalitako estaldurak eta arriskuak berrikusten ditu urtero, edo beharrezkoa denean, eta hurrengo urterako arrazoizko moduan estali beharreko zenbatekoak adosten ditu.

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan den mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

	Saldoa				Saldoa
	31-12-19	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	31-12-20
<i>Kostua</i>					
Aplikazio informatikoak	12.335	27.905			40.240
Ibilgetu ukiezinatarako aurrerakinak		123.934			123.934
Kostua guztira	12.335	151.839	0	0	164.174
<i>Amortizazio metatua</i>					
Aplikazio informatikoak	-302	-1.850			-2.152
Guztira amort. metatua	-302	-1.850	0	0	-2.152
Garbia	12.033	149.988	0	0	162.021

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan den mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

	Saldoa				Saldoa
	31-12-18	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	31-12-19
<i>Kostua</i>					
Aplikazio informatikoak		12.335			12.335
Kostua guztira	0	12.335	0	0	12.335
<i>Amortizazio metatua</i>					
Aplikazio informatikoak		-302			-302
Guztira amort. metatua	0	-302	0	0	-302
Garbia	0	12.033	0	0	12.033

Ez da gertatu eragin esanguratsurik oraingo ekitaldian edo etorkizuneko ekitaldietan, hondar-balioei, bizitza erabilgarrii edo amortizazio-metodoi eragiten dienik.

Fundazioak ez du ibilgetu ukiezinako ondasunen balio-zuzenketa egin.

Fundazioak ez du ondasun higiezinetan inbertsiorik.

6. oharra.- Finantza-aktiboak

Honako hau da Fundazioaren balantzearen aktiboari dagozkion finantza-tresnei buruzko informazioa:

Epe laburrera kobratu beharreko kontuak:

Ez dago kobratu beharreko konturik.

Zor publikoa duten zor saldoak, 9 oharrean islatzen dira.

7. oharra.- Finantza-pasiboak

Honako hau da Fundazioaren epe luzeko balantzearen finantza-pasiboei buruzko informazioa:

Deskribapena	2020	2019
Deribatua eta bestelakoak	12.250	
Guztira	12.250	0

Saldoa esleitu dituzten lanengatik bi fidantzakoa da.

Honako hau da Fundazioaren epe laburrerako balantzearen finantza-pasiboei buruzko informazioa:

Deskribapena	2020	2019
Zerbitzuen hartzekodunak	56.231	41.450
Ordaintzeke dauden ordainsariak	0	11.354
Guztira	56.231	52.804

Finantza publikoekin eta gizarte segurantzarekiko kreditu saldoak 9. oharrean islatzen dira.

8. oharra.- Funts propioak

Honako hau izan da funts propioen kontuetako mugimendua 2020 ekitaldian zehar:

	Saldoa 2019-12-31n	Igoerak	Murrizketak	Saldoa 2020-12-31n
Gizarte-funtsa	30.000			30.000
Aurreko ekitaldietako soberakinak	0			0
Ekitaldiko soberakina	0			0
Guztira	30.000	0	0	30.000

Fundazioaren zuzkidura

2020ko abenduaren 31n, Adinberri Fundazioaren zuzkidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenek osatzen dute soilik (fundatzaile bakarra).

9. oharra.- Zerga-egoera

Fundazioaren IFKa hau da: G-75204867. Fundazioa bat dator irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauarekin (ikus 4.4 oharra).

Administrazio Publikoekiko saldo korrontek

Zordunen saldoak	2020	2019
Ogasun publiko zorduna (BEZ)		
Gipuzkoako Foru Aldundia zorduna (diru-laguntzak)		
Guztira	0	0
Hartzekodunen saldoak	2020	2019
Ogasun publiko hartzekoduna (PFEZ)	17.451	14.202
Gizarte Segurantza hartzekoduna	5.622	5.238
Guztira	23.073	19.440

Memoria igorritako datan, zerga-agintaritzek Fundazioaren 2020 eta 2019 ekitaldiak aztertu ditzakete, jarduerarekin lotutako zerga guztiei dagokienez.

Ezinezkoa da etorkizunean zerga-agintaritzen ikuskaritzetatik eratorritako pasibo eta zerga-kontingentziak objektiboki zehaztea. Hala ere, Zuzendaritzak uste du eratorri daitekeen pasiboak ez liekeela eragingo atxikitako finantza-egoerei, eta, ondorioz, ez da hornidurarik erregistratu pasibo eta kontingentzia horiei aurre egiteko.

10. oharra.- Diru-sarrerak eta gastuak

A) Diru-sarrerak

Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioetatik

Honako hau da erakundeak jarduera propioetatik eskuratu dituen diru-sarrerari buruzko informazioa:

Kontzeptua	2020	2019
Emitzari egotzitako diru-laguntza, donazio eta legatuak	629.775	1.017.777
Guztira	629.775	1.017.777

Honako hau da erakunde emakidadunari egotzitako diru-laguntzei, donazioei eta legatuei buruzko informazioa:

Erakunde emakidaduna	2020	2019
Gipuzkoako Foru Aldundia	614.775	1.017.777
Kutxa Fundazioa	15.000	
Guztira	629.775	1.017.777

Ikusi 11. oharra.

B) Gastuak

Moneta-Laguntzak

	2020	2019
Moneta-Laguntzak	0	650.000
Guztira	0	650.000

Jardueraren bestelako gastuak

Deskribapena	2020	2019
Profesional independenteen zerbitzuak	117.182	54.851
Banku eta antzeko zerbitzuak	0	24
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	176.643	40.223
Hornidura	1.815	239
Bestelako zerbitzuak	40.499	19.603
Guztira	336.139	114.940

Langileen gastuak

Deskribapena	2020	2019
Soldatak eta ordainsariak	236.546	202.889
Gizarte Segurantzaren enpresaren kargura	55.977	48.824
Bestelako gizarte-gastuak	1.113	1.141
Guztira	293.636	252.853

11. oharra.- Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak

2020ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren epigrafe honetako saldoak itzuli ezin diren diru-laguntzei, donazioei eta legatuei lotutako eta amortizatu gabeko zenbatekoa islatzen du. Honako hau da horiekin lotutako informazioa:

Euroak

	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa
	2019-12-31n	berriak 2020	emaitzetara	2020-12-31n
Diru-laguntzak	25.705	259.000	-6.552	278.153
Guztira	25.705	259.000	-6.552	278.153

Aurreko ekitaldian izandako mugimendua honako hau izan da:

Euroak

	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa	
	2018-12-31n	berriak 2019	Intsuldaketa	emaitzetara	2019-12-31n
Diru-laguntzak	8.000	4.000	16.259	-2.554	25.705
Guztira	8.000	4.000	16.259	-2.554	25.705

Funtzionamenduko diru laguntzen xehetasuna honako hau da:

Euroak

	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa
	2019-12-31n	berriak 2020	ustaipen emaitzetara	2020-12-31n
Diru-laguntzak	32.542	637.659	-614.775	55.425
Guztira	32.542	637.659	-614.775	55.425

Aurreko ekitaldian izandako mugimendua honako hau izan da:

Euroak

	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa
	2018-12-31n	berriak 2019	Intsuldaketa	2019-12-31n
			ustaipen emaitzetara	
Diru-laguntzak	45.029	3.772	-16.259	32.542
Guztira	45.029	3.772	-16.259	0

2020ko ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzak jaso dira. Diru-laguntza horiekin, ekitaldiko gastu arruntak estali dira, 637.659 euro (1.021.549 aurreko ekitaldian) eta 259.000 euro (4.000 aurreko ekitaldian), ibilgetu ukiezinean eta materialean inbertsioak egiteko.

Era berean, 2020ko ekitaldian Kutxa Fundazioaren 15.000 euroko diru-laguntza jaso da, gastu arruntak ere estaltzeko (10. oharra).

12. oharra.- Erakundearen jarduera. Ondare-elementuak xede propioetarako aplikatzea eta administrazio-gastuak.

Erakundearen jarduera eta aurrekontuaren likidazioa

a) Erakundearen jarduera

2020an egindako jarduerak hauek dira:

- Estrategia hedatzea eta aurreratzea, lehentasuna emanaz 6 erronka estrategikori eta 4 proiektu traktoreri, bai eta 44 proiektu esperimentalen kudeaketari eta segimenduari ere.
- Gogoeta estrategikoa eta Adinberri Fundazioaren Balio Proposamena definitzea, kanpoko eta barneko ikuspegia kontuan hartuta.
- Adinberri Plataforma garatzea eta aurrera egitea, bai modulu korporatiboan bai CRMn. Azken hori ekosistemaren informazioa komunitate birtualaren ikuspegitik kudeatzera bideratuta dago, eta helburua eragileen eta proiektuen arteko lotura eta elkarreragina sustatzea da.
- Nazioarteko sareetan, proiektu traktoreen bidez (ITHACA, Gatekeeper, Europolo edo Silver Economy, besteak beste) parte hartzeko aurrerapausoak
- Prestakuntza- eta gaikuntza-ibilbideari dagokionez, ADINPREST trakzio-proiektua jarri da martxan. Zainketen sektorea profesionalizatu eta kualifikatzea du helburu, kalitatezko enplegua sustatzeko eta arreta- eta zainketa-zerbitzua hobetzeko. Balio-katearen faseei laguntzen dieten ekosistemaren 7 ekimen biltzen dituen proiektua

- Adimen Aurreratuko Sistema (behatoki prospektiboa) abian jartzea, zahartzearekin lotutako erronkak aurretiaz gobernatzeko. Etorkizuneko joerak eta agertokiak identifikatzeko gai den tresna, pentsamendu eta esku-hartze eta ekintza estrategiko eta berritzaileen oinarri informatuak eskaintzeko denbora irabaziz. Gipuzkoan, Euskadin eta gure inguruko gizarteetan zahartzeari buruz INFORMATZEKO eta EZAGUTZEKO plataforma irekia. Beste informazio- eta ezagutza-iturri batzuekin eta Gipuzkoako zahartze osasungarriaren inguruko beste erakunde batzuekin ELKARREKINTZARAKO eta LANKIDETZARAKO gunea. Eragile publiko eta pribatuei oinarri informatuak eskaintzea ahalbidetzen duten ETORKIZUNEKO JOERAK eta AGERTOKIAK identifikatzeko tresna
- Adinberri 2020 Programarako laguntzen deialdia kudeatzea, Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurunearen Sailarekin batera. Deialdia Silver Economy-ra bideratu da.
- "Adinberri Radar" ebaluazio-sistemaren jarraipena eta aplikazioa 2019. deialdiko proiektu esleipen-hartzaileei. Horrez gain, haren betearazpenaren luzapena eta Adinberri Patronatuaren aurrean dituen kontingentzia-planak kudeatuko ditu.
- Silver Economy erronka: programaren 2. fasea amaitu da. Idom aholkulariak eta Merkataritza Ganberak 8 hilabetez egindako azterketa eta ikerketa. Horren ondorioz, Gipuzkoan Silver Economy delakoaren Esparru Estrategikoa definitu da, eta bost espezializazio-nitxo lehenetsi dira.
- Ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzea: Proiektuei laguntzea, azken erabiltzaileen eta esparruko profesionalen balidazioa eta testak sustatuz. Oinarri teknologikoa dutenak BIC Gipuzkoaren eskutik landu dira. BIC eta Adinberriren arteko harremana sendotzea.

Fundazioak eskuratutako diru-sarrera garbien % 100 baliatu du Fundazioak berak zehaztutako xedeetarako.

b) 2020 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, jardueraka

Jarraian, 2020 ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa aurkeztuko da:

Erabilitako baliabide ekonomikoen aurreikuspena guztira:

GASTUAK / INBERTSIOAK	Aurreikusia		Ez jarduera esleitu	Aurreikusia guztia	Egina	Desbideratzea
	Jarduera 1	Jarduera 2				
Pertsonaleko gastuak	358.224			358.224	293.636	64.588
Jardueraren beste gastu batzuk	41.500	290.000		331.500	336.139	-4.639
Ibelgetua amortizatzea	65.214			65.214	6.552	58.662
Transferentziak, diru- laguntzak ematea		350.000	0	350.000		350.000
Gaztuen guztizko partzialak	464.938	640.000	0	1.104.938	636.327	468.611
Ibilgetua eskuratzea	259.000			259.000	165.993	93.007
Inbertsioen guztizko partziala	259.000	0	0	259.000	165.993	93.007
Guztira	723.938	640.000	0	1.363.938	802.320	561.618

Erakundeak eskuratu beharreko eta eskuratutako baliabide ekonomikoen aurreikuspena.

DIRU-SARRERAK/BESTE BALIABIDE BATZUK	Aurreikusia	Egindakoa	Desbideratzea
GFAREN transferentziak	1.039.724	614.775	424.949
Emaitzetara transferitutako kapital-laguntzak			0
Ekarpen pribatuak	0	15.000	-15.000
Finantzako diru-sarrerak			0
Diru-sarreraren guztizko partziala	1.039.724	629.775	409.949
GFAREN inbertsiorako transferentziak	259.000	259.000	0
Inbertsioen guztizko partziala	259.000	259.000	0
Guztira	1.298.724	888.775	409.949

Jardueraren beste helburu batzuk eta adierazleak

Helburua	Adierazlea	Aurreikusia	Egina
Adinberri lagundutako I+G+B proiektuen kopurua (Boton up eta Top Down)	Agente Kopurua	44	48
Adinberriko ekintzetan parte hartzen eta hartu duten agenteak	Agente Kopurua	230	522

c) Ondare-elementuak xede propioetarako aplikatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2a 9/2016 Legearen 29.artikuluarekin bat etorriz, Fundazioak edozein bidetatik lortutako diru-sarrerren %70, gutxienez, Fundazioak berak ezarritako helburuak betetzeko erabili behar da, eta gainerakoa Fundazioaren zuzkidura handitzeko erabiliko da, administrazio-gastuak kendu ondoren. Fundazioak atal honetan adierazten diren errenten eta diru-sarrerren proportzioa erabiltzerik izango du horiek lortu eta hiru urteren buruan.

d) Administrazio-gastuak eta diru-sarrerren xedea

2020 ekitaldian, Fundazioak 107.750 euroko administrazio-gastuak izan ditu (109.634 euro aurreko ariketan), gerentzia-kontzeptuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren era Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 31. artikulua araber, administrazio-gastuak honako hau dira:

- Ondasunak eta eskubideak zaindu, kudeatu eta defendatzeko ondare garbiko gastu zuzenen zenbatekoa.
- Gobernu-Organoko kideen gastu justifikatuak itzultzea, beren eginkizunak betetzen dituztenean. Halaber, Kide horientzako ordainsarien zenbatekoa, eta zenbateko hori berariaz xedatzea fundatzaileak: ez da horrelako gasturik egin, ez 2020an eta ez 2019an.
- Fundazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak. Zerbitzu horiek gerentziakoak edo kudeaketakoak izango dira, eta fundazioaren izenean beste jarduera batzuk gauzatzekoak ere bai.

Kudeatzailearen soldata-kostuaren %100.

Aholkularitza-gastuen %100.

Kontu Zk.	Galdu-irabazien kontu-sailetak	Gastuaren xehetasuna	Egozteko irizpidea	Zenbatekoa
640	Soldata eta lansariak	79.433	100%	79.433
642	Gizarte-zamak	15.336	100%	15.336
629	Aholkularitza-zerbitzuak	12.981	100%	12.981
Administrazio-gastuak		107.750		107.750
Diru-sarrerak				888.775
Ehuneko (% 20ko muga)				12%

Administrazio-gastuak

Ekitaldi	Muga > bietatik		Ondarearen administrazioaren gastu zuzenak(2)	Fundazioaren patronatuei ordain dakizkiekeen gastuak (3)	(4)=(2)+(3) Ekitaldian sortutako administrazio-gastuak	Gainditzen du (-) Ez du gainditzen (+) Gehieneko muga (1)-(4)
	Diru-sarreraren %20 (1)	Funts propioen %5				
2018	13.834	1.500	26.545		26.545	-12.711
2019	209.721	1.500	109.634		109.634	100.088
2020	177.755	1.500	107.750		107.750	70.005

9/2019 legea, 29.artikulua eta 115/2019 Dekretua, 31.artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.4 artikulua arabera, Fundazioak administrazio-gastuen muga betetzen du. Artikulu horren arabera, Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek euren karguak betetzeagatik egindakoak, baldin eta, lege honetan ezarritakoaren arabera, horien gainean errenbolto-eskubiderik badute.

Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gaindituko puru hauetako handiena: funts propioen % 5 edo urteko ekitaldiko soberakinen % 20, behin kendu ondoren diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik.

Errenta eta diru-sarreraren jomuga:

Ekitaldia	Diru-sarrerak (*)	Bideratuko den errenta	%	Fundazioaren xedetarako erabiltutako gastuak (gastuak eta inbertsioak) (1)	2018	2019	2020	Aplikatu beharreko zenbatekoa
2018	69.171	48.420	% 70	69.171	69.171			0
2019	1.048.607	734.025	% 70	1.048.607		1.048.607		0
2020	888.775	622.143	% 70	688.018			688.018	0

(*) Ikusi Euskal Autonomia Erkidego Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30. artikulua

Ekitaldian aplikatutako balibideak:

Zenbatekoa (2020 ekitaldia)				GUZTIRA
a) Xedek betetzeko gastuak				522.025
Funts propioak	Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak	Zorra		GUZTIRA
b) Xedek betetzeko inbertsioak				165.993
Guztira (a + b)				688.018

HELBURUAK BETETZEKO GASTUAK	2020	2019
Pertsonal- gastuak	293.636	252.853
Jarduerako bestelako gastuak	336.139	767.495
Administrazio-gastuak	-107.750	-109.634
GUZTIRA	522.025	910.714

13. oharra.- Alderdi asoziatuekin eginiko eragiketak

Alderdi asoziatuei dagokienez, ez dago lizentzia-akordiorik, finantzaketa-akordiorik, salmenta- edo erosketa-aukerekiko konpromiso irmorik, kostuak banatzeko akordiorik alderdi asoziatuek erabiliko dituzten ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari begira, diruzaintza kudeatzeko akordiorik, ezta zorrak barkatzeko eta indargabetzeko akordiorik ere.

14. oharra.- Bestelako informazioa

Batez beste 4,5 pertsona kontratatu dira ekitaldian (3,33 aurreko ekitaldian)

Fundazioaren Patronatuari buruzko informazioa:

Honako hau zen Fundazioaren Patronatuaren osaera 2020ko abenduaren 31n:

Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru-diputatua
Presidentea

Maite Peña López andrea, Gizarte Politikako Departamentuko foru-diputatua
Presidenteordea

José Enrique Corchón Álvarez jauna, Finantza eta Aurrekontuen zuzendari nagusia
Kidea

Harkaitz Millán Etxezarreta jauna, Kultura, Lankidetz, Gazteri eta Kirol Departamentuko foru-diputatua
Kidea

Maite Barruetabeña Zenekorta andrea, Araubide Juridikoko eta Funtzio Publikoko zuzendari nagusia
Kidea

Rafaela Romero Pozo andrea, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru-diputatua
Kidea

Jokin Perona Lerchundi jauna, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru-diputatua
Kidea

Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Ingurumena eta Obra Hidraulietako Departamentuko
foru-diputatua
Kidea

Unai Andueza Iraeta jauna, Proiektu Estrategikoetako zuzendari nagusia
Idazkaria

Patronatuko kideek ez dute ordainsaririk jaso. Abenduaren 31ra arte ez zitzaien aurrerakin edo krediturik esleitu Patronatuko kideei, ezta pentsioekin eta bizi-aseguruekin lotutako obligaziorik ere.

Halaber, ez dago kontratu-harremanik Patronatuko kideen eta Fundazioaren artean.

15. oharra.- Hornitzaileei egindako ordainketen atzerapenei buruzko informazioa

Hornitzaileei egindako ordainketen batez besteko epea 16,82 egunekoa da (20,41 aurreko ariketan).

16. oharra.- Ekitaldia itxi ondorengo gertaerak

Ez dago ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik, ekitaldiaren itxiera-datan zeuden inguruabarrak nabarmentzen dituenik, eta erregistro- eta balorazio-araua aplikatzearen ondorioz, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuetan bildutako zifretan doikuntzaren bat sartzea ekarri duenik edo erantsitako urteko kontuetan doikuntzarik ekarri duenik, nahiz eta memorian bildutako informazioa gertaera horren arabera aldatu behar izan edo gertaera horiek urteko kontuen erabiltzaileen ebaluazio-ahalmenari eragiteko moduko garrantzia izan.

Ez dago funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioaren aplikazioan eragina duen ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik.

17. oharra.- Inbentarioa

Honako partida honek osatzen zuen inbentarioa 2020 ekitaldia amaitzerakoan:

Elementuaren deskribapena	Erosketa- data	Kontab.-balioa	Pil. amort.	Balio garbia
Aplikazio informatikoak	2019-2020	40.239	2.152	38.087
Ibilgetu ukiezinetarako aurrerakinak	2020	123.934		123.934
Altzariak	2019-2020	18.643	3.935	14.708
Ekipamendu informatikoak	2019-2020	11.436	3.019	8.417
Kutxako kontu korrontea		269.986		269.986
Inbentarioa guztira (2020-12-31)		464.238	9.106	455.132

Honako partida honek osatzen zuen inbentarioa 2019 ekitaldia amaitzerakoan:

Elementuaren deskribapena	Erosketa- data	Kontab.-balioa	Pil. amort.	Balio garbia
Aplikazio informatikoak	2019	12.335	302	12.033
Altzariak	2019	9.814	1.186	8.628
Ekipamendu informatikoak	2019	6.111	1.067	5.044
Kutxako kontu korrontea		134.786		134.786
Inbentarioa guztira (2019-12-31)		163.045	2.554	160.491

Donostian, 2021ko martxoaren 31an

2020eko abenduaren 31n amaitutako urteko kontu laburtu hauek honako hauek osatzen dituzte: egoera laburtuaren balantzea, emaitzen kontu laburtua eta memoria laburtua (17 notatan banakatuta, 1etik 22ra zenbakituak). Urteko kontu horiek Patronatuko lehendakariak eta idazkariak sinatzen dituzte.



Jabier Larrañaga Garmendia jauna
*Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Inguruneko Departamentuko
foru-diputatua*
Presidentea



Unai Andueza Iraeta jauna
*Proiektu Estrategikoetako
zuzendari nagusia*
Idazkaria